



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko otsailaren 14a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 27/2018 Foru Legea. Akats zuzenketa (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (4. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EKS-Erabilera-lagapenaren Kooperatiba Seniorren jarraipenerako lan-talde misto bat era dezan. Eskubide Sozialetako Batzordeak onetsia (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 27/2018 Foru Legea.

AKATS ZUZENKETA

Bi akats aurkitu dira 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean, 2018ko abenduaren 22ko 159. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena. Horrenbestez, honako zuzenketa hauek egin dira:

– 8.2.a) artikuluan “Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko Zerbitzua” esan ordez “Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Laguntzaren Jarraitutasunerako Zerbitzua” behar du. Beraz, honako hau dioen tokian:

“a) Farmazia Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzua; Osasun Mentaleko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Profesionalen Zerbitzua; Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko Zerbitzua, Kudeaketa, Informazio eta Ebaluaziorako Zerbitzua, Herritarren Harrerarako eta Arretarako Zerbitzua, Langileen eta Lan Harremanen Zerbitzua eta Nafarroako Ospitaleguneko Langileen Administrazio Zerbitzua eta Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren Zerbitzua; Tuterako eta Lizarrako Osasun Barrutietako Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zerbitzuak eta Profesionalen zerbitzuak; Ospitalez kanpoko Larrialdietarako Zerbitzua; Tuterako eta Lizarrako Oinarrizko Osasun Laguntzaren eta Laguntzaren Jarraitutasunerako zerbitzuak; Osasun Mentaleko Zainketa Asistentzialen Zerbitzua, Zainketa Asistentzialetarako eta Etxeko Arretarako Zerbitzua eta Tuterako eta Lizarrako osasun barrutietako Zainketa Asistentzialen zerbitzuak; Osasuneko Informazio Sistemen Zerbitzua; Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko Zerbitzua eta Gizarte Osasuna Sustatzeko zerbitzuak, eta Epidemiologiaren eta Osasun Prebentzioaren Zerbitzua, Lan Osasunaren Zerbitzua, Kudeaketa Ekonomikoaren eta Profesionalen Zerbitzua, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan

Osasunaren Institutuko Elikagaien Segurtasunaren eta Ingurumen Osasunaren Zerbitzua, Araubide Juridikoaren Zerbitzua eta Osasunbideko gainerako zerbitzuak: 52.416,14 euro”.

Honako hau esan behar du:

“a) Farmazia Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzua; Osasun Mentaleko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Profesionalen Zerbitzua; Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Laguntzaren Jarraitutasunerako Zerbitzua, Kudeaketa, Informazio eta Ebaluaziorako Zerbitzua, Herritarren Harrerarako eta Arretarako Zerbitzua, Langileen eta Lan Harremanen Zerbitzua eta Nafarroako Ospitaleguneko Langileen Administrazio Zerbitzua eta Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren Zerbitzua; Tuterako eta Lizarrako Osasun Barrutietako Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zerbitzuak eta Profesionalen zerbitzuak; Ospitalez kanpoko Larrialdietarako Zerbitzua; Tuterako eta Lizarrako Oinarrizko Osasun Laguntzaren eta Laguntzaren Jarraitutasunerako zerbitzuak; Osasun Mentaleko Zainketa Asistentzialen Zerbitzua, Zainketa Asistentzialetarako eta Etxeko Arretarako Zerbitzua eta Tuterako eta Lizarrako osasun barrutietako Zainketa Asistentzialen zerbitzuak; Osasuneko Informazio Sistemen Zerbitzua; Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko Zerbitzua eta Gizarte Osasuna Sustatzeko zerbitzuak, eta Epidemiologiaren eta Osasun Prebentzioaren Zerbitzua, Lan Osasunaren Zerbitzua, Kudeaketa Ekonomikoaren eta Profesionalen Zerbitzua, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Elikagaien Segurtasunaren eta Ingurumen Osasunaren Zerbitzua, Araubide Juridikoaren Zerbitzua eta Osasunbideko gainerako zerbitzuak: 52.416,14 euro”.

– 72. zenbakiko in voce zuzenketan, 56. orrialdean, honakoa hau dioen tokian:

IV 72 +z.T.	A - Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua	A50 Kirola eta gazteria sustatzea	A50001 Kirol eta gazteriako azpiegiturak	A5410	7609	336103 BERRIA	Diru-laguntza toki entitateentzako, igerilekuen araudira egokitzeko	1.300.000
	1 - Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua	110 Aurrekontu- eta finantzaketa-politika, barne kontrola eta kontabilitatea	110000 Aurrekontu- eta finantzaketa-politikako, barne kontrolako eta kontabilitateko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	11000	5000	923402	Kontingentzia funtsa	-1.300.000

Honakoa behar du:

IV 72	A - Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua	A50 Kirola eta gazteria sustatzea	A50001 Kirol eta gazteriako azpiegiturak	A5410	7609	336102	Toki entitateentzako deialdia, kirol instalazioak zaharberritu eta kirol instalazio berriak eraikitzeko	1.300.000
	1 - Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua	110 Aurrekontu- eta finantzaketa-politika, barne kontrola eta kontabilitatea	110000 Aurrekontu- eta finantzaketa-politikako, barne kontrolako eta kontabilitateko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	11000	5000	923402	Kontingentzia funtsa	-1.300.000

Iruñean, 2019ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2018ko abenduaren 12ko 151. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Bi apartatuari testua gehitzeko zuzenketa:

Bi apartatu berri gehitzen zaizkio. Eduki hau izanen dute:

“j) Ezbeharren aurrean ematen den edo aurreikusten den erantzuna prestatzea, larrialdiko planak eta eragiketa-protokoloak ezarriz, ezbeharren parte hartu beharko duten zerbitzu guztien jarduketa koordinatua ahalbidetuko duten funtzio eta hierarkia egiturak jasoko dituztenak.

k) Oinarrizko zerbitzuak berrezartzea eta ezbeharren ukitutako ehundura sozioekonomiko eta eta ingurumenekoa berreskuratzeko programa sustatzea”.

Zioak: Osoagoa iruditzen zaigu.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Laugarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Hona eduki berria:

“Nafarroako administrazio publikoek, nor bere eskumenen esparruan, babes zibilaren arloan egin behar dituzten oinarrizko jarduketak hauek dira: arrisku egoerak aurreikusi eta horiei aurrea hartzea, plangintzak egitea, esku-hartzea (babes zibileko planak abian jarri ondoren), koordinazioa, egoera normaltasunera ekartzea, eta herritarrei eta larrialdietako zerbitzuetako langileei argibideak eta prestakuntza ematea”.

Zioak: Jarduketaren norabidea plan bakoitzean ezartzen da eta ez modu orokorrean.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sei apartatua aldatzeko zuzenketa; honako eduki hau izanen du:

“7. bis artikulua. Informazio- eta alerta-sarea.

Nafarroako Gobernuaren Herritarren segurtasunaren arloko departamentu eskudunak informazio- eta alerta-sare bat sortu eta koordinatuko du, larrialdiko egoerak aurreikusteko, detektatzeko eta jarraitzeko sistema gisa, eta agintari eskudunei eta larrialdiko egoeretan parte hartzen duten zerbitzuei larrialdien abisuak komunikatzeko sistema gisa eta herritarrentzako informazio-zerbitzu gisa.

Sistema Babes Zibilako Zerbitzuak kudeatu du, Nafarroako Gobernuaren segurtasun publikoaren ardura duen departamentuaren zuzendaritzaren pean.

Sareak, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, Nafarroako Foru Komunitateko arriskuen inbentarioa, katalogoa eta arriskua jasoko ditu, eta haiek aldizka gaurkotuko dira.

Aipatutako sarea parte hartuko dute larrialdiko egoeren prebentzioan eta haiek detektatzen

eta jarraitzen lagundu dezaketen Nafarroako administrazio publiko guztiek eta haren sektore publikoko erakunde guztiek.

Halaber, erraztasunak emanen dira sarean funtzionalki integartzeko Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean egon daitezkeen gainerako informazio- eta alerta-sistema publiko zein pribatuak.

Sistemaren elkarreragingarritasuna sustatuko da, denbora errealean larrialdiei buruzko informazio guztia edukitzeko.

Alarma eta Alerta Sarearen kudeatzaileak, informazioaren titularrekin lankidetzan, ezbehar-atalaseak ezarriko ditu pertsoneri nahiz ondasunei kalteak eragiteko aukerari erreparatuta, eta agintariei, larrialdi zerbitzuei eta herritarrei atalase bakoitzean jakinarazi beharreko abisuak ezarriko ditu.

Alarma eta Alerta Sarearen kudeatzaileak herritarrei nahiz babes zibileko sisteman inplikaturako entitate guztiei informazioa emanen die, bai modu prebentiboan, bai modu errektiboan ere Horretarako, abisu-sistema desberdinak ezarriko ditu, hedapenaren eraginkortasuna bermatuko dutenak, hedapen hori zuzentzen zaien kolektibo-entitateei dagokienez.

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hamabosgarren apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez du zentzurik. 41. artikuluan jada ezarrita daude sartutako eginkizunak eta egindako aldaketak.

Larrialdien kudeaketarako zentroa espazio fisiko bat da, zeinari zenbait eginkizun esleitzen zaizkion; haren zuzendaritza, berriz, planetan ezarritakoaren arabera izanen da. Haren eginkizuna koordinazioa erraztea da.

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hamaseigarren apartatua aldatzeko zuzenketa; honako hau da edukia:

“f) Informazio- eta alerta-sarean sartzea, foru lege honetan ezarritako baldintzetan”.

Zioak: Egokiagoa da planteatutako aldaketarako.

6. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hamazazpigarren apartatua gehitzeko zuzenketa; honako hau da edukia:

“i) Foru lege honetan araututako informazio- eta alerta-sarea sortu eta koordinatzea.

Zioak: Departamentuaren eskumena da, planteatutako aldaketaren arabera, eta beharrezkotzat jo da artikulua honetan sartzea.

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hogeita seigarren apartatua aldatzeko zuzenketa; honako hau da edukia:

«Hogeita sei. “39. bis artikulua gehitzen da. Hona testua:

39. bis artikulua. Honako hauek dira larrialdiak kudeatzeko sistema publikoaren parte:

a) Babes Zibileko Zerbitzua eta Larrialdien Kudeaketarako Zentroa.

b) Ospitalez kanpoko larrialdi zerbitzuak, ospitaleetako larrialdi zerbitzuak eta oinarrizko osasun laguntzakoak, ospitale eta osasun etxe publikoak eta osasuneko garraio publiko eta hitzartua, hala nola osasun zerbitzu publikoak.

c) Nafarroako administrazio publikoetako prebentzio, su-itxaltze eta salbamendu zerbitzuak.

d) Nafarroako Foruzaingoa eta Nafarroako toki entitateetako polizia.

e) Estatuko segurtasun kidego eta indarrak, eta larrialdien kudeaketa xede duten Estatuko Administrazioaren Zerbitzuak.

f) Errepide eta herrilantetako mantentze zerbitzuak eta ingurumena babestekoak

g) Gizarte zerbitzuak.

h) Babes zibileko boluntarioen elkarteak eta toki entitateen mende dauden suhiltzaile boluntarioek zerbitzu publikoen mende jardunen dute.

i) Telekomunikazioen, uraren, gasaren eta argindarraren sareen hornidura, mantentze eta

zainketa zerbitzuak, eta oinarrizko zerbitzuen beste hornitzaile batzuk.

j) Aurreko apartatuetan berariaz aipatu ez diren gainerako zerbitzu publikoak eta erakunde pribatuak, larrialdi- edo hondamendi-egeretan laguntza eta lankidetzaren eman dezaketenak herritarrei babesa eta laguntza emateko eginkizunetan. Horiek zerbitzu laguntzailetzat hartuko dira, eta kasuan kasuko agintaritzaren eskudunaren zuzendaritzaren menpe jardunen dute».

Zioak: Egokiagoa da.

8. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hogeita zazpigarren apartatua aldatzeko zuzenketa; honako hau da edukia:

«Hogeita zazpi. Puntu bat eransten da, 4. puntua izanen dena. Honako testu hau izanen du:

“4. Babes zibilaren arloko departamentu eskudunak behar diren baliabideak edukiko ditu desgaitasuna duten pertsonen zerbitzurako sarbidea izateko mekanismoak bermatzeko. Halaber, erraztuko du zerbitzurako sarbidea izatea Europar Batasuneko beste hizkuntza ofizial batzuetan, eta hizkuntza berekien erabilerari buruzko araudia beteko du”.

Zioak: Egokiagoa da.

9. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hogeita zortzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa; honako hau da edukia:

“3. Larrialdien Kudeaketarako Zentroa larrialdien eta babes zibilaren kudeaketaren arloko departamentu eskudunari atxikiko zaio, funtzionalki Babes Zibilerako Zerbitzuaren pean.

4. Larrialdien eta babes zibilaren kudeaketaren arloko departamentu eskudunak ezarriko ditu Larrialdien Kudeaketarako Zentroaren eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta beste administrazio publiko batzuetako larrialdierbitzuetako aginte eta koordinazio zentroen arteko elkarreragingarritasuna bideratuko duten informatikako eta telekomunikazioetako estandar teknikoak”.

Zioak: Egokiagoa da ezarritako araupetzerako.

10. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hogeita bederatzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa; honako hau da edukia:

“41. bis artikulua. Larrialdien Kudeaketarako Zentroaren eginkizunak.

Nafarroako Gobernuak, erregelamendu bidez, zentro horren eginkizunak, antolamendua eta funtzionamendua arautuko ditu.

Erregelamendu bidez ezartzen diren eginkizunetaz gain, Larrialdien Kudeaketarako Zentroari honako hauek dagozkie:

a) Larrialdietako deiak hartzeko zerbitzua ematea 112 telefono zenbakiaren bakarraren bidez.

b) Behar diren zerbitzuen koordinazio eta bate-ragarritasuna kudeatzea eta teknikoki laguntzea, esku hartzen duten baliabideen kudeaketa optimizatuz, ezarritako mugikortasuneko protokolo eta prozeduren arabera edo jaso daitezkeen aginduen arabera.

c) Larrialdiaren bilakaeraren kontrola eta jarraipena egitea; horri begira, koordinazio eraginetarako behar den informazio guztia jasoko du.

d) Babes zibileko informazio eta alerta sarearen transmisioen komunikazio, kontrol eta koordinazio sisteman parte hartzea, alertak zuzenean eginez, larrialdi motaren arabera ezarritako moduan.

e) Koordinazio Operatiboko Zentrora eta Koordinazio Operatibo Integratuko Zentrora balio izatea larrialdi egoera bat deklaratzenean, babes zibileko kasuan kasuko plan autonomikoa abiarazi ostean, plana formalki abiarazi duen babes zibileko agintari eskudunaren zuzendaritzapean”.

Zioak: Osoagoa iruditzen zaigu oinarrizko eginkizunei dagokienez.

11. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hogeita hamaikagarren apartatua aldatzeko zuzenketa; honako hau da edukia:

3. zenbakiko puntuaren azken lerrokada kentzen da; gainerakoa lege proposamenean bezala geratzen da.

Zioak: Ez zaigu egokia iruditzen hura lege honetan arautzea; izan ere, lege hau teknikariei buruzkoa da, orokorrean. Beste erregulazio bereziago behar du, eta negoziatua, izan ditzakeen eraginengatik.

12. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista

Hogeita hamabigarren apartatua aldatzeko zuzenketa; honako hau da edukia:

«Hogeita hamabi. 43. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Honela geldituko da idatzita:

“2. Protokolo operatiboak babes zibilaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak ontesiko ditu, Babes Zibilerako Zerbitzuak proposatuta, esku hartzen duten baliabideen titularrekin ados jarrita”».

Zioak: Legearekin bat datorrelako.

13. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hogeita hamahirugarren apartatua aldatzeko zuzenketa; honako hau da edukia:

«Hogeita hamahiru. 44. artikuluari bigarren paragrafo bat erantsiko zaio. Testu hau izanen du:

“Eskudantzia horiek falta direnez, pertsonen bizitza arriskuan dagoenean eta jarduteko batasunak hori ezinbesteko egiten duenean, babes zibilaren arloan eskuduna den departamentuko tituluak larraldiari aurre egiteko jarraibide puntualak

eduki ahalko ditu, edo esku hartzen dutenen artean pertsona bat izendatu ahalko du, daukan trebeziaren arabera, eragiketetarako zuzendari moduan”».

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu haren esku-menatarako.

14. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hogeita hamalagarren apartatua kentzeko zuzenketa.

Aldatzeko proposamena kentzen da, jatorrizko testua gera dadin.

Zioak: Aldaketa ez zaigu beharrezkoa iruditzen. Uretako eta ur azpiko salbamendurako taldeak eta mendiko salbamendurakoak sortuta daude jada.

15. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALIISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa. Hona hemen edukia:

“Azken xedapenetan lehena bis. Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzua

Foru lege honen testu osoan zehar, ulertuko da “prebentzio, su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuak” terminoaren ordez, Nafarroako suhiltzaileen zerbitzua erabili behar dela, irailaren 9ko 198/2015 Foru Dekretuan ezarritakoaren indarrez”.

Zioak: 198/2015 Foru Dekretua.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EKS-Erabilera-lagapenaren Kooperatiba Seniorren jarraipenerako lan-talde misto bat era dezan.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2019ko otsailaren 6an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EKS-Erabilera-lagapenaren Kooperatiba Seniorren jarraipenerako lan-talde misto bat era dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du EKS-Erabilera-lagapenaren Kooperatiba Seniorren jarraipenerako lan-talde misto bat era dezan, legeria indardunaren egokitzapenak koordinatuko dituena eta partaide gisa izanen dituena Foru Administrazioa, Nafarroako toki administrazioak eta gizarte-entitate interesdunak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arestian aipatutako lan-taldearen konklusioak hartuta lehen txosten tekniko bat presta dezan gehienez ere bi hilabeteko epean, honako eduki bikoitz honekin: lehen parte batean EKS batek Nafarroako Administrazio Publikoaren berariazko errekonozimendua izateko bete beharreko baldintzak ezarriko dira; eta bigarrenean, berriz, berrikusi beharreko lege-alderdiak nahiz administrazio-funtzionamendukoak jasoko dira.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte-intereseko entitate gisa aitor ditzan EKS-Erabilera-lagapenaren Kooperatiba Seniorrak, halako moduan non botere publikoek proiektu horien eratzea eta garatzea sustatuko baitituzte eta abal gisa balioko baitu haien ezarpenari laguntzeari begira".

Iruñean, 2019ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza